

EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN BATZORDEAREN 2021ERAKO JARDUERA-PLANAREN ETA URTEKO JARDUEREN PROPOSAMENA

PROPOSATUTAKO JARDUERAK

a) Indarrean dagoen zuzenbidea berrikustea, ikertzea eta aztertzea

9.f) artikulua, besteak beste, honako eginkizun hauek ematen dizkio Batzordearen Osoko Bilkurari: "Indarrean dagoen zuzenbidea sistematikoki aztertu eta berrikustea, barne hartuta, idatzizko arauz gain, ohiturazko zuzenbidea eta Euskal Zuzenbide Zibilaren jatorrian dauden printzipio orokorretatik datorrena jakinaraztea eta hedatzea, zuzenbide horren aplikazioa errazteko eta haren garapenaren euskarri izan beharko diren oinarriak eta konexio-puntuak ezartzeko xedez."

2015-2018 aldiko ebaluazio orokorra egiteko ahalegin handia egin ondoren, eta ebaluazio-ahalegina aldizka errepikatu behar bada ere, aldien arteko konparaketak egin ahal izateko, euskal zuzenbide zibilaren bilakaerari buruzko ikuspegi dinamikoa lortzeko eta, beraz, hura etengabe hobetzeko, lehen ebaluazioa amaitu ondoren, denbora-tarte bat igaro behar da datu berriak sortu ahal izateko (ebazpen judizial berriak, notario-jardunbide berria, aztertu beharreko bitartekaritza-zerbitzuen memoria berriak).

Beraz, proposatzen da hurrengo ebaluazio-aldia ere, funtsean, 4 urtekoa izatea. Hau da, 2015-2018 azterketari (ebaluazio horretan egiten den aurretiko egoerarekin alderatzeari kalterik egin gabe) 2019-2022 aldiko ebaluazioa jarraitzea. Eta, ebaluazio hori, 2021etik aurrera, martxan jarri arte, eraginkorragotzat jotzen da ahaleginak bi jarduera-ildotan biltzea:

a) Dagokien erakunde eta organoekin lankidetzan, biltzen diren datuen kalitatea eta iturriak eta informazioa hobetzen saiatzeko, bereziki 2015-2018 ebaluazioak datuak biltzeko modua edo datuok eskuratzeko dagoen banakatze-maila nahikoa ez dela edo hobetu litekeela erakutsi duen alderdian. Ildo horretan, 2021ean gure egitekoa izango da, besterik gabe, informazio-iturri baliodunak mantendu edo hobetu ahal izateko landa-lana egitea, bere garaian etorkizuneko ebaluazio berriak egituratzeko.

b) Bitarte edo aldi horretan, ebaluazio orokorreko ahalegina errepikatu behar den arte, alderdi espezifikoak osatzen edo garatzen dituzten analisi partzialak, sektorialak edo gai zehatzei buruzkoak egitea. Ildo horretan, interes eta premia gehien duten analisiak, zalantzarik gabe, oraintsu lege-aldaketak izan dituzten edo egindako ebaluazioan kontuan hartu ezin izan diren (gerora gertatu direlako) edo zeharka bakarrik kontutan hartuak izan diren gaiei buruzkoak dira (garrantzi handiko erreformak direlako edo, adibidez, ebaluaketa aurrekoak izan arren edo une hartan prestatze-fasean egon arren, ebaluazioa egin ondoren indarrean jarri direlako).



Azken ildo horretan, arau hauek onartzeak edo indarrean jartzeak izan ditzakeen ondorioak aipa daitezke, aztergai bezala:

- 2016ko ekainaren 24ko 2016/1104 Erregelamendua indarrean jartzea. Erregelamendu horrek lankidetzaren indartua ezartzen du erregistratutako batasunen ondare-ondorioen arloko eskumen-eremuan, aplikatu beharreko legean eta ebazpenak aitortu eta betearaztean.
- 2016ko ekainaren 24ko Kontseiluaren 2016/1103 Erregelamendua indarrean jartzea. Erregelamendu horrek lankidetzaren indartua ezartzen du ezkontzaren araubide ekonomikoaren arloko eskumenaren, lege aplikagarriaren, aitortpenaren eta ebazpenen betearazpenaren arloan.
- Apirilaren 28ko 6/2021 Legea onartzea, Erregistro Zibilari buruzko uztailaren 21eko 20/2011 Legea aldatzen duena eta azken honen gainerako aldaketa berriak.
- Ekainaren 2ko 8/2021 Legea onartzea. Lege horren bidez, legeria zibila eta prozesala aldatzen da, desgaitasunen bat duten pertsonen beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko.
- Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa onartzea.

b) Euskal zuzenbide zibilarren garapena bultzatzea

Euskal kasazio zibilari buruzko Lege Proiektua 2021eko ekainaren 1ean onartu zen, eta orain testuaren legebiltzar izapidetzeari ekingo zaio. Zentzu horretan, Batzorde hau, ganberaren organo aholku-emailea ere baden neurrian, Eusko Legebiltzarraren esku egongo da, hark eskatzen digunerako.



c) Estatuko eta Europako arau-esparruari dagokionez, zaintza eta alerta goiztiarra

Indarrean dagoen zuzenbidearen berrikuspena, ikerketa eta azterketari dagokion atalean adierazi den bezala, ebaluazio osoaren orde, azterketa sektorialagoak egingo dira, Estatuko eta Europako arau-esparruaren aldaketa berrienekin lotuta.

Gainerakoan, 2021. urte honetan, etorkizunean gerta daitezkeen aldaketei begira, beste batzuetan adierazi den bezala, Batzordea Euskal Zuzenbide Zibilak araututako erakundeei eragin diezaieketen arau-proiektuei adi egongo da, eta Batzordearen Lehendakartzari aldaketa eta proiektu posibleen berri emango dio. Hau egin egingo da, bai batzodekideen bidez, zeintzuenkin Idazkaritzatik komunikazio-kanal bizkorak ezarriko diren, zein Batzorde Teknikoaren bidez, funtsean Autonomia-Erkidegoko Administrazio Orokorreko zerbitzu juridiko zentraletako edo sail ezberdinetako aholkularitza juridikoetan lan egiten dute legelariak osatuko duten eta Osoko Bilkuraren zerbitzura lan egingo duen organo gisa.

Era berean, Batzordea, organo horien beraien bitartez, Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren esku jarriko da, eska dezaketen edozein aholkularitza-eskaerari erantzuteko, batez ere estatu edo Europa mailako lege- edo arau-prozedurak izapidetzean kontsultatzen direnean.

d) Batzordearen beste eginkizun batzuk

Batzordearen eginkizunen artean daude zuzentasun teknikoa, hizkuntza juridikoaren eta estiloaren argitasuna eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa sustatzea, euskara euskal zuzenbide zibilaren adierazpen-hizkuntza gisa erabiltzea, haren terminologia juridikoa aztertzea, sustatzea eta zabaltzea, eta Europan eta estatuan oro har onartzen diren erregulazio onaren printzipioak bermatzea.

Ildo horretan, aurreko atalean xedatzen den bezala, Batzordea Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren esku jarriko da, adierazitako gaiari buruzko edozein aholkularitza-eskaerari erantzuteko, Batzordearen lanetan eta egiten dituen zirriborro edo arau-proiektuetan kontuan har dadin zaintzeari utzi gabe.

e) La organización y gestión de las propias actividades de la Comisión

Junto con las anteriores, en los Estatutos también se asignan a la Comisión las siguientes tareas, que serán atendidas desde la Secretaría General:

- De conformidad con los artículos 4 y 11.3.b), desde la Secretaría general se han de Coordinar las relaciones externas e institucionales de la Comisión lo que, entre otras funciones, supone el impulso y promoción de la formalización de instrumentos de colaboración con otros órganos consultivos de codificación o especializados en Derecho civil, al objeto de fomentar el intercambio de experiencias, el conocimiento de buenas prácticas y el desarrollo de instrumentos



prácticos o informáticos u otras áreas de cooperación en materias de interés común.

A tal efecto, para 2021 se planea consolidar y profundizar en los contactos ya realizados con la Comissió de Codificació de Catalunya y el Observatori de Dret Privat de Catalunya, así como con la Comisión Aragonesa de Derecho Civil, y se planea establecer contacto con la Comisión General de Codificación.

- De conformidad con el artículo 11.3.j), se habrá de supervisar la creación de un fondo documental y bibliográfico sobre el Derecho privado del País Vasco. En este sentido, para 2021 se plantea continuar los trabajos de coordinación entre la Biblioteca del Servicio Jurídico Central de Gobierno vasco y la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo para la identificación y catalogación de los ejemplares disponibles en sus propios fondos, así como en los de la Biblioteca General de Gobierno Vasco, en esta materia.

e) Batzordearen jarduerak antolatzea eta kudeatzea

Aurrekoekin batera, Estatutuetan honako zeregin hauek ere esleitzen zaizkio Batzordeari, eta Idazkaritza Nagusiak beteko ditu:

- 4. eta 11.3.b) artikuluekin bat etorritik, Idazkaritza Nagusiak koordinatu egin behar ditu Batzordearen kanpo-harremanak eta harreman instituzionalak. Horrek, besteak beste, kodegintza-arloko edo zuzenbide zibilean espezializatutako beste organo aholku-emaile batzuekin lankidetzatresnak formalizatzea bultzatu eta sustatzea dakar, esperientzien trukea, jardunbide egokien ezagutza eta interes komunekoa gaitan tresna praktikoak edo informatikoak edo beste lankidetzatarlo batzuk garatzea sustatzeko.
- Horretarako, 2021erako, Comissió de Codificació de Catalunyaekin eta Observatori de Dret Privat de Catalunyaekin eta Zuzenbide Zibileko Aragoiko Batzordearekin gaur eguneko harremanak sendotu eta sakonduko dira, eta Kodegintzarako Batzorde Orokorrekin harremanetan jartzeko asmoa dago.
- 11.3.j) artikulua araberak, Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuari buruzko funts dokumental eta bibliografiko baten sorrera gainbegiratu beharko da. Ildo horretan, 2021erako, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiko Liburutegiaren eta Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren arteko koordinazio-lanekin jarraitzea planteatzen da, beren funtsetan eta Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusian arlo horretan eskuragarri dauden aleak identifikatzeko eta katalogatzeko.

Vitoria-Gasteiz, a 29 de junio de 2021.

